

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Bi atal desberdin baina helburu bera duen aplikazio bat sortzea da asmoa, jendeari laguntzea. Alde batetik, jendearekin elkartzeko atala dago; bertan, jendeak egin nahi dituen planen ideien iragarkiak jarri ahalko ditu, eta jendeari bere gustuen arabera (aplikazioan, erregistratzean, betetzen den profilari esker), iragarki desberdinak gomendatuko dizkio aplikazioak. Bestalde, zerbitzuen atala dago; atal honetan jendeak iragarkiak jarri ahalko ditu, bere zerbitzuak eskainiz, edota eskatuz. Zerbitzuen ordainketak aplikazioaren bidez egingo dira. Aplikazioak “chat”-a izango du, erabiltzaileek elkarren artean komunikatzeko eta prezioen inguruan eztabaidatzeko aukera izango dute.

